



**Asensio,  
Jose Luis**

*(Etxarri Aranatz, 1980)*

**J**ose Luis dut izena, eta Iruñerrian bizi naiz, berez Etxarri Aranatz herrikoa naizen arren. Ikasketak ingeniari lanetan burutu nituen. Telekomunikazio Ingeniari bezala lan egiten dut ikertzaile moduan gaur egun, baina teknikari lanak alde batera utzita, kultura munduan ere saiatu naiz zenbait gauza egiten. Adibidez, musika arloan saiatu naiz bibolina joz, Tahures Zurdos, La Fuga, Kerobia eta La Sonrisa Metalica taldeen disko lanetan nire izena agertze delarik. Baina tarteka atsedendiak izan arren, idaztea da nire zaletasun iraunkorrena.

Betidanik izan dut ipuinak asmatzeko gaitasuna. Asko gustatzen zait ideia bat buruan dudala, bueltaka ibiltzea pertsonaiak landuz, nolakoak diren pentsatuz eta zer gertatuko zaien milaka aldiz eraldatuz. Gero idaztea, beste gauza bat da.

Idazketa lantzea asko kostatzen zait, horregatik behar bada, lehenik buruan argi izan nahi dut zer kontatu nahi dudan. Gauzak ondo badoaz, denbora luzez behin eta berriz moldatu ondoren nire baitan egon den ideia, bat baitean agertzen da idatzita zuzenketa asko behar ez duelarik. Gauzak gaizki doazenean... tira, parrafo bakar bat ere idatzi gabe bukatu daiteke proiektua, betirako ahaztuta.

Dena, irudi edo amets batekin hasi ohi da. Nolabait, irudi bat sartzen zait buruan, edo amestu dudan sententzia bat. Eta horren inguruan, narrazio bat lantzen hasten nahiz, nik izandako sententzia edo pertzepzioa helarazteko moduari bila. Beldurra, barregura, nazka, ondoezina... edozer gauza izan daiteke, baina normalean sentimendu garbi baten bila nabil.

Behin idazten hasi ondoren, naiz eta guztiz bukatua ez egon, nire lanak beste norbaitek irakurtzea gustoko dut, bere iritzia nireganatu eta aldaketak egiteko. Askotan argi dudan zerbait ez dut horren argi paperean adierazten, eta

hutsune horiek betetzeko ondo datorkit norbaiten laguntza. Gaur egun, nire emaztea da pertsona hori, berak aberasten ditu nire idatziak eta bihotzez eskertzen diot bere laguntza.

Idatzitako istorioetan, enpatia ere asko lantzen dut. Hau da, pertsonaien izateko modua sortu ondoren, momentu bakoitzean nola sentitzen diren aztertu eta kontatzen saiatzen naiz gogoz. Irakurtzean, garrantzitsua iruditzen zait irakurleak pertsonaia bakoitzak egiten duena zergatik egiten duen ulertzea, sinesgarritasuna lortzeko. Normalean, ekintza hunkigarri batekin hasten dira nire ipuinak, irakurlea irakurketara lotzeko. Baina gutxika korapiloa askatuz noan heinean, pentsatu nahiko nuke, irakurleak agertzen diren pertsonaiak ezagutzen dituela eta esan bezala, ulertzen.

Horregatik izango da, baina nire ipuin eta kontakizunak, xume eta irakurtzeko errazak izan ohi dira. Ez dut literatura aberats eta mamitsua egiten, eleberrri erakargarri eta ulerterrazak idazten ditut normalean. Liburu bat irakurtzen hasi, eta irakurtzen duzuna ulertzen ez duzun arte esaldiak kiribildu eta korapilatzen direnean, aspertu egiten nahiz irakurketaz.

